


Iñaki Osinalde Elgarresta

D maila • 2 saria

Ni Iñaki Osinalde naiz, Gabirian bizi naiz eta pelotan ibiltzea gusatzen zait.



MENDIAK

1.-

Mendi aldera sarri jotzen det
Haizeak erakarrita
Hango ganadu,hango belardi
Dena belarrez josita
Mendiko botak jantzita lasai
Urritz makila polita
Mendia nola ez det maitteko
Euskal herrian bizita.

2.-

Beren lanean utzi pakean
Ardi,behor eta behiei
Hala iruittu ta esatea
Nola gustatzen zaidan nei
Erreztasunak eman behar zaie
Ganaduzale,artzaiei
Errespetua zor baitiegu
Menditik bizi direnei

3.-

Goizean hasi mendian gora
Ta lasai pasa eguna
Osasuntsua,jasangarria
Izan dadila jarduna
Eta zakarrik sortuz gero
Zurekin hartu laguna
Mendian ez dezagula egin
Kalean nahi ez deguna

4.-

Gure aldean ere badago
Bista ikaragarria
Txindoki aldera begia bota
O bestela Aizkorria
Egin beharko dudarik gabe
Bertsoetan aldarria
Gora mendia, mendizaleak
Ta gora Euskal herria